

Dokumentuaren egilea:
2017ko urtarrila



Dokumentu honetan lhobek, 2016ko ekitaldian, [Euskal Autonomia Erkidegoko erosketa eta kontratazio publiko berdearen 2020 programaren](#) esparruan gauzatutako jarduerak jasotzen dira. Zeregin horiek bi jarduera-arlo hauetan banantzen dira:

1. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEAREN 2020 PROGRAMAREN IZAPIDETZEA

2. PROGRAMAREN ILDO ESTRATEGIKOEN HEDAPENA

2.1. ILDO ESTRATEGIKO BAKOITZERAKO EGINDAKO JARDUERAK

2.2. PROGRAMAREN JARDUEREN INPLEMENTAZIO-EGOERA:

2.3. JARDUEREN LABURPENA

1. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEAREN 2020 PROGRAMAREN IZAPIDETZEA

• EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEAREN 2020 PROGRAMAREN ONARPENA

Joan den 2016ko irailaren 20an **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEAREN 2020 PROGRAMA** onartu zen, Gobernu Kontseiluaren erabakiaren bidez (2016-9-20ko Gobernu Kontseilua), Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak eta Ogasun eta Finantza Sailak eskatuta:

- <https://www.ihobe.eus/Publicaciones/Ficha.aspx?IdMenu=750e07f4-11a4-40da-840c-0590b91bc032&Cod=b34b0641-45b2-4b5a-9870-469079626014&Idioma=eu-ES&Tipo=>
- <http://www.irekia.euskadi.eus/eu/news/34572-consejo-gobierno-aprueba-programa-compra-contratacion-publica-verde-del-pais-vasco-2020-consejo-gobierno-2016>

2. PROGRAMAREN ILDO ESTRATEGIKOEN HEDAPENA

Programa horrek bere helburu kuantitatibo eta kualitatiboak **5 ILDO ESTRATEGIKO**ren bidez hedatzea aurreikusten du. Ildo estrategiko horiek, bestalde, 19 ekintza zehatzetan hedatzen dira.

Onarpen ofiziala urteko azken hiruhilekoan gertatu arren, 2016 osoan lan egin du lhobek, Programan aurreikusitako jardueren ildoko jarduerak abiaraziz, haren xedeetan aurrera egiteko. Hauek dira xede horiek:

- Administrazio eraginkorragoa, baliabideen erabilera efizienteagoa egingo duena lortzen laguntzea.
- Merkatuarekiko koordinazioa optimizatzea, kontratazioan ekoberrikuntza jasotzeko eta euskal enpresak hobeto kokatu ahal izateko.
- Euskal administrazioaren maila guztietan konpromisoa lortzea.



Ihobek 2016ko ekitaldian gauzatutako jarduerak ILDO ESTRATEGIKO horien arabera egituratu dira. Hauek dira ildo estrategikoak:

- 1. ILDO ESTRATEGIKOA: Edukia eta inplementatzeko tresnak**
- 2. ILDO ESTRATEGIKOA: Kontratazio-prozeduretan sartzea**
- 3. ILDO ESTRATEGIKOA: Prestakuntza eta trebakuntza**
- 4. ILDO ESTRATEGIKOA: Merkatuarekiko koordinazioa**
- 5. ILDO ESTRATEGIKOA: Komunikazioa, zabalkundea eta sareko lana**

Hemen egiten den jarraipena, beraz, Programan bertan jasotako jarduerak betearazteko mailari dagokio.

2.2. ILDO ESTRATEGIKO BAKOITZERAKO EGINDAKO JARDUERAK

1. ILDO ESTRATEGIKOA: EDUKIA ETA INPLEMENTATZEKO TRESNAK

1. JARDUERA: Erosketa eta kontratazio publiko berderako gidaliburu praktikoa eguneratu eta zabaltzea

- **1. EKINTZA:** Hondakinen kudeaketari eta bideen garbiketari buruzko kapitulua garatzea

Hondakinen kudeaketako eta bideen garbiketako produktu-kategoriaren kapitulua garatu da. Hauek jasotzen ditu kapitulu horrek: kapitulu orokorra, hiru eskakizun mailetako ingurumen-irizpideak, hiru eskakizun mailetako hornitzaileentzako kontrol-zerrenda, laburpen-fitxa eta irizpide erraztuen kapitulua. Dokumentu horiek itzuli eta maketatu ondoren, Erosketa eta kontratazio publiko berderako gidaliburuan sartuko dira. Gidaliburua Erosketa Publiko Berdea web-atalean dago argitaratuta, www.ihobe.eus webgunean.

- **2. EKINTZA:** Garraio publikoa: autobusak kapitulua garatzea

Garraio publikoa: autobusak kategoriaren kapitulua garatu da. Hauek biltzen ditu kapitulu horrek: kapitulu orokorra, hiru eskakizun mailetako ingurumen-irizpideak, hiru eskakizun mailetako hornitzaileentzako kontrol-zerrenda, laburpen-fitxa eta irizpide erraztuen kapitulua. Dokumentu horiek itzuli eta maketatu ondoren, Erosketa eta kontratazio publiko berderako gidaliburuan sartuko dira. Gidaliburua Erosketa Publiko Berdea web-atalean dago argitaratuta, www.ihobe.eus webgunean.

- **3. EKINTZA:** Energia hornidura kapitulua garatzea

Lehen proposamena egin da. Zenbait eskakizun mailetarako ingurumen-irizpideak sartzen dira hor. Lehen proposamen hori administrazioarekin eta Energiaren Euskal Erakundearekin (EEE) egiaztatu da. Oraindik ez da sektore pribatuarekin egiaztatu, behin betiko bertsiorako, sektorearen agenda arazoengatik.

- **4. EKINTZA:** Instalazioak kapitulua garatzea

Lehen proposamena egin da. Zenbait eskakizun mailetarako ingurumen-irizpideak sartzen dira hor. Lehen proposamen hori enpresa-sektorearekin egiaztatu da eta Energiaren Euskal Erakundearen (EEE) oharrak jaso dira. Kapitulu horren amaierari buruzko hausnarketa falta da.

- **5. EKINTZA:** Ingurumen-irizpideak sinplifikatzea 14 produktu-kategoriarentzat

Europako Batzordearen gidalerroei jarraiki, ingurumen-irizpideak sinplifikatzeko lan teknikoari ekin zaio, produktu-kategoria hauentzat:

2015EAN LANDUTAKOAK:

- Ekitaldiak
- Inprimagailuak
- Lorezaintza
- Garbiketa-zerbitzuak
- Altzariak
- Ordenagailuak
- Papera
- Ibilgailuak

2016AN LANDUTAKOAK:

- Bidaiak
- Bulegoko materiala
- Mezularitza
- Ehungintza (laneko jantziak, barruko jantziak eta osagarriak)
- Argiztapena
- Elikadura (jantokiak, cateringa eta vendinga)

- **6. EKINTZA:** Erosketa Publiko Berdea web-atala egokitzea www.ihobe.eus webgunean

Ihobeko Komunikazio eta Sistema Sailarekin koordinatuta, Erosketa Publiko Berdea web-atala egokitu da, www.ihobe.eus webgunean, Ihobek politika hori hedatzeko euskal administrazioari eskaintzen dizkion lana eta zerbitzuak eskuragarriago bihurtzeko.



Jarduera horretan, Ihobe lantzen ari den eremu sortu berriei heltzeaz gain, bereziki azpimarratu da “Ingurumen-irizpideak” atala. Garatutako dokumentazio tekniko guztia jasotzen da hor.

- **7. EKINTZA:** ERAS tresnaren aplikazio informatikoa garatzea.

Aurten ERAS tresnaren aplikazio informatikoa garatu da. Eraikuntza eta birgaitze jasangarrirako gidaliburuak aplikatzeko tresna bat da ERAS. Batez ere, eraikuntza eta birgaitze jasangarrirako neurrien aplikazioaren kontabilitatea sinplifikatu nahi du tresna horrek.



1. jarduera: Erosketa eta kontratazio publiko berderako gidaliburua eguneratu eta zabaltzea

Jarraipen-adierazlea:	Programan lehenetsitako talde eta produktuetatik, irizpideak berrikusi eta/edo garatuta dauzkatenen ehunekoa
	% 90 2018ko mugaren aldean
	% 80 2020ko mugaren aldean

2. JARDUERA: Eredu-agirien proposamenak egitea lehenetsitako produktu / zerbitzuentzat

- **1. EKINTZA:** Eredu-agirien proposamenerako jarraitu behar den estrategia definitzea

Eredu-agirien proposamenerako jarraituko den estrategia erabaki da: 2017an, ingurumen-irizpideak era eredugarrian jasotzen dituzten lehenetsitako produktu/zerbitzuak kontratatzeko agirien benetako ereduak identifikatuko dira, administrazio guztiekin partekatzeko.

3. jarduera: Eredu-agirien proposamenak egitea

Jarraipen-adierazlea:	Programan lehenetsitako taldeetatik, eredu-agiria eskuragarri daukatenen ehunekoa
	% 0 2020ko mugaren aldean

3. JARDUERA: Jarduera pilotuak abiaraztea eremu berrietan

- **1. EKINTZA:** Pilotua berrikuntzako erosketa publikoan

Erosketa berdetik hurbileko eremu berriei lotuta, proiektu pilotu bat abiarazi da euskal administrazioan berrikuntzako erosketa publikoa sustatzeko. Pilotu horren esparruan, honako lan hauek egin dira:

- Artearen egoera berrikuntzako erosketa publikoaren arloan
- Proiektu pilotu baten garapena: **Sestaoko ertzain-etxearen barruko patioko kanpoko arotz-lanak ordeztea**
- Ondorio txostena/dokumentua idaztea, administrazioan berrikuntzako erosketa publikoa ondo hedatzeko gida/gidalerroak izateko.

2016ko ekitaldian artearen egoera egin da eta proiektu pilotuaren zati bat betearazi da. Metodologia deskribatu, merkatuarekiko egiaztapena egin eta agiri-proposamena egin da, gero argitaratzeko.

- **2. EKINTZA:** Berrikuntzako erosketa publikoari buruzko ideien koaderno

Berrikuntzako erosketa publikoari buruzko ideien koaderno argitaratu da. Haren bidez berrikuntzako erosketara ohitu nahi da administrazioa.

- <https://www.ihobe.eus/Publicaciones/ficha.aspx?IdMenu=750e07f4-11a4-40da-840c-0590b91bc032&Cod=607190a2-be93-4514-ac66-cdaace3badbe&Idioma=es-ES&Tipo=>



Halaber, eta ideien koadernoaren aurkezpen gisa, joan den apirilean “Erosketa publikoaren eredu berriak: erosketa publiko berdea eta berrikuntzako erosketa publikoa” jardunaldia egin zen. Jarduera hori 3. ildo estrategikoan (Prestakuntza eta trebakuntza) kontabilizatuko da.

- **3. EKINTZA:** Erosketa publiko berderako eta bizi-zikloaren kostuen analisirako gidaliburua egitea.

Erosketa publiko berderako eta bizi-zikloaren kostuen analisirako gidaliburua argitalpena argitaratu da. Bizi-zikloaren kostuen kontzeptua erosketa berdera hurbildu nahi du gidaliburu horrek. Doan eskura daiteke Ihoberen webean:

- <https://www.ihobe.eus/Publicaciones/Ficha.aspx?IdMenu=750e07f4-11a4-40da-840c-0590b91bc032&Cod=bacafc9f-66a9-43c4-9866-fd70273beb88&Idioma=es-ES&Tipo=>



Halaber, eta ideien koadernoaren aurkezpen gisa, joan den irailean “Bizi-zikloaren kostuak: nola sartu kontratazio publikoan” jardunaldia egin zen. Jarduera hori 3. ildo estrategikoan (Prestakuntza eta trebakuntza) kontabilizatuko da.

3. jarduera: Jarduera pilotuak abiaraztea eremu berrietan	
Jarraipen-adierazlea:	Egin eta dokumentatutako jarduera pilotuen kopurua (urtekoak eta pilotua)
	Pilotu bat abiarazi da
	Halaber, beste 2 jarduera gehigarri abiarazi dira, zorrozkiki proiektu pilotuak ez direnak

4. JARDUERA: Laguntza tekniko pertsonalizatua eskaintzea

- **1. EKINTZA:** Ingurumena txertatzeko 50 jarduera egin dira

Euskal administrazioari laguntzeko 50 jarduera egin dira; haietatik, 37 agirietan ingurumena txertatzeko laguntza-eskaerak dira eta 13 kontsultak.

Laguntza-eskaera horiek 32 administraziook egin dituzte guztira; 14 autonomiako administrazio orokorrarenak dira (Eusko Jaurlaritza), 2 eskaera foru-aldundietatik datoz eta 16 gainerako toki-erakundeetatik.

- **2. EKINTZA:** Ingurumen-klausulak jarraibide eta prozeduretan sartzeko laguntza

Proiektuak eta obra-zuzendaritza kontratatuzko, eraikinak eraikituzko obra gauzatzeko, obra zibila gauzatzeko eta instalazioak eta akaberak kontratatuzko agiri ereduak berrikusi dira zeregin horretan. Aldaketak proposatu dira eredu-agirietan 4 toki-erakunderentzat (4 udal), Bizkaiko Foru Aldundiaren mendeko erakunde 1entzat eta Eusko Jaurlaritzako sail 1entzat.

- **3. EKINTZA:** Eraikuntzako erakundearteko mahaiaren kudeaketa

2016ko ekitaldian eraikuntza eta eraikigintzako erakundearteko mahaia abiarazten jarraitu zen. 2 euskal hiriburuk, Eusko Jaurlaritzako 4 erakunde publikok, aldundi 1ek eta aldundi horretako erakunde publiko 1ek, eta uren partzuergo 1ek osatzen dute mahaia. Aurten 3 bilera egin dira.

- **4. EKINTZA:** Prestakuntza-jardunaldiak ematea Gasteizko Udalarentzat eta Bizkaiko Foru Aldundiarentzat

Gasteizko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak erosketa publiko berdearen arloko prestakuntza emateko eskatu zioten Ihoberi, bi administrazio horietako langileentzat. Saio hauek egin ziren:

- Gasteizko Udala: 11 saio- 1,5 ordu saioko (275 funtzionario prestatuta)
- Bizkaiko Foru Aldundia: 2 saio- 5 ordu saioko (50 funtzionario prestatuta)

4. jarduera: Laguntza tekniko eskaintzea	
Jarraipen-adierazlea:	Jasotako eskaeren kopurua eta erantzunen ehunekoa (urtekoa eta pilotua)
	<p>2016: 37 eskaera ingurumena txertatzeko 14 kontsulta 6 jarraibide/landutako prozedura/eredu-agiri 2 prestakuntza-eskaera gauzaturak</p> <p>GUZTIRA: 59 jasota eta % 100eko erantzunak</p>

5. JARDUERA: *Garatutako produktu eta zerbitzuentzako irizpideak ikuspegi pribatura edo zuzeneko erosketako ikuspegira egokitzea*

▪ **1. EKINTZA:** Zuzeneko erosketako 9 fitxa egitea

Programan lehenetsitako produktuentzat sortutako dokumentazioaren esparruan zuzeneko erosketako fitxak egin dira, administrazioek, horri buruzko atalaseak gainditu ezean, nahiz erakunde pribatuek eurek erabili ahal izateko. Kategoria hauetarako daude eskuragarri fitxa horiek:

- Papera
- Inprimagailuak
- Ibilgailuak
- Ekitaldiak
- Ehungintza
- Ordenagailuak
- Eraikinen garbiketa
- Altzariak
- Lorezaintza



5. jarduera: Garatutako produktu eta zerbitzuentzako irizpideak ikuspegi pribatura edo zuzeneko erosketako ikuspegira egokitzea

Jarraipen-adierazlea:	Gidaliburuko taldeetatik, zuzeneko erosketarako eta/edo erosketara pribaturako fitxak egin zaizkien ehuneko ¹
	% 45 (9, lehenetsitako 20 produktuetatik)

¹ Euskal Autonomia Erkidegoko erosketara eta kontratazio publiko berderako gidaliburuan, landutako produktu/zerbitzuen zenbakia ez dator bat Euskal Autonomia Erkidegoko erosketara eta kontratazio publiko berdearen 2020 Programan lehenetsitakoen zenbakiekin. Koherenteak izateko, adierazle hori, nahiz Programan landutako antzeko gainerako adierazleak bertan lehenetsitako produktu/zerbitzuei buruzkoak izango dira.

2. ILDO ESTRATEGIKOA: KONTRATAZIO-PROZEDURETAN SARTZEA

6. JARDUERA: *Dauden kontratazio-ereduak eta -tresnak berrikustea*

- **1. EKINTZA:** Euskal Autonomia Erkidegoko kontratazio-plataforma aldatzea

Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Saila hasi da Euskal Autonomia Erkidegoko kontratazio-plataforma aldatzen, lhobek egindako proposamenak sartzeko, administrazioek euren lizitazioetan, besteak beste, ingurumenaren aldagaia kontuan hartzen dutela ziurtatzeko.

6. jarduera: Dauden kontratazio-ereduak eta -tresnak berrikustea

Jarraipen-adierazlea:

Parte hartzen duten administrazioetatik, jarduera egin dutenen kopurua eta ehunekoa.

Ehunekoa atxikitako administrazioen erlaziokoa da eta kontratazio-tresna ere ez dago jarduteko prest lantzen ari diren aldaketekin; beraz, ekitaldi honetan ez da egokia hura kalkulatzeko.

7. JARDUERA: *Erosketa eta kontratazio publiko berdeko prozesuak birdefinitzea*

Jarduera honen bidez Programari atxikitako administrazioen banako erosketa- eta kontratazio-prozesuak birdefinitu nahi dira. Ez da horri lotutako jarduera zehatzik egin, oraindik ez dagoelako Programari atxikitako administrazioerik.

7. jarduera: Erosketa eta kontratazio publiko berdeko prozesuak birdefinitzea

Jarraipen-adierazlea:

Parte hartzen duten administrazioetatik, erosketa eta kontratazio publiko berdeko prozedurak daukatenen kopurua eta ehunekoa

e.g. (oraindik ez dago atxikitako administrazioerik)

Ez da hedatu atxikimenduari lotutako jarduera hau baina obra/eraikuntzari lotutako jarraibideak/prozedurak edo eredu-agiriak landu dira 6 erakunde publikotan (4. jarduera/2. ekintza)

8. JARDUERA: Erosketa publiko berdea sustatzea

- 1. **EKINTZA:** Topaketa euskal administrazio nagusien artean erosketaren zentralizazioaren arloan

Joan den uztailan “Erosketa publiko berdea sinplifikatzea: erosketa zentralizatuan eta esparru-erabakietan ingurumena txertatzea” jardunaldia egin zen. Jardunaldian parte-hartze handia egon zen eta iritzi asko trukatu ziren erosketen eta kontratazioen zentralizazioaren aldeko eta kontrako puntuak balioesteko. Era berean, euskal administrazioan horri lotutako jarduerak abiarazteko egun dauden aukerei buruz eztabaidatu zen.

8. jarduera: Erosketa berde publikoa sustatzea	
Jarraipen-adierazlea:	Baterako erosketak sustatzeko egindako ekintzen kopurua.
	Baterako erosketak sustatzeko ekintza 1 eginda
	Zentralizatutako erosketen eta/edo ezarritako erosketa-zentralen kopurua
	3

3. ILDO ESTRATEGIKOA: PRESTAKUNTZA, TREBAKUNTZA ETA SENTSIBILIZAZIOA

9. JARDUERA: Erosketa eta kontratazio publiko berdea prestakuntza-eskaintzan sartzea

- 1. **EKINTZA:** 8 jardunaldi tekniko egitea

Aurten prestakuntza-jardunaldi hauek egin ziren, administrazioarentzat:

- Erosketa publikoaren eredu berriak: erosketa publiko berdea eta berrikuntzako erosketa publikoa. Erosketa publiko berderako bultzada berriak Euskal Autonomia Erkidegoan.
- Erosketa publiko berdearen balioa Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoentzat. Nola bultzatu.
- Erosketa publiko berdea sinplifikatzea: erosketa zentralizatuan eta esparru-erabakietan ingurumena txertatzea.
- Bizi-zikloen kostuak: nola sartu kontratazio publikoan. Hartzailea: Administrazioa
- Eraikuntzako erosketa eta kontratazio publiko berdeari buruzko prestakuntza-jardunaldiak administrazio publikoentzat: Eraikigintza jasagarria (3 jardunaldi)
- Erosketa berdea ikastetxeetan



9. jarduera: Erosketa eta kontratazio publiko berdea prestakuntza-eskaintzan sartzea

Jarraipen-adierazlea:	Eskaintako prestakuntza-ikastaroen kopurua, urtean eta guztira
	8 prestakuntza-ikastaro eskainita
	Prestakuntza-ikastaroetako parte-hartzaileen kopurua
	232 lagun
	Jasotako prestakuntzaren balorazio positiboa egiten duten parte-hartzaileen ehunekoa
	Parte-hartzaileen % 100ek egiten dute jardunaldiaren balorazio positiboa. Lortutako batez besteko balorazioa: 10etik 7,7. <i>Jardunaldiaren balorazio positibotzat jotzen da 6,67tik gorako puntuazioa, jardunaldiaren gogobetetasun globalari buruz)</i>

10. JARDUERA: Prestakuntza-moduluak prestatzea autoikaskuntzarako

- **1. EKINTZA:** Autoikaskuntza-ikastaroa webean argitaratzea, ppts formatuan

Ihoberen webean sartu da lineako prestakuntzarako egindako prestakuntza-materiala. Modulu hauek garatu dira:

- Kontratazio-zuzentarau berriak
- Euskal Autonomia Erkidegoko erosketa eta kontratazio publiko berdearen Programaren proposamena
- Sarrera erosketa eta kontratazio publiko berdera
- Politika eta lege esparrua
- Ekoetiketak
- Argitalpen zerbitzuan ingurumena txertatzea
- Garbiketarako Zerbitzuaren ingurumeneko erosketa eta kontratazioa

10. jarduera: Prestakuntza-moduluak prestatzea autoikaskuntzarako

Jarraipen-adierazlea:	Garatutako moduluen kopurua
	7 modulu garatuta autoikaskuntzarako (laster eskuragarri web orrian)
	Moduluak egiten dituzten parte-hartzaileen kopurua
	e.g. (oraindik ez daude eskuragarri)

11. JARDUERA: Sentsibilizazioko aldizkako ekintzak egitea

- 1. **EKINTZA:** Kanpoko proiektuen 2 jardunaldi edo bileratan parte hartzea

Joan den urrian Udalsarearen Batzordean parte hartu eta Euskal Autonomia Erkidegoko erosketa eta kontratazio publiko berdearen 2020 programa aurkeztu zen.

Irailaren 21ean Euskal Autonomia Erkidegoko erosketa eta kontratazio publiko berdearen 2020 programa aurkeztu zitzaion Confebaski.

11. jarduera: Sentsibilizazio-ekintzak egitea	
Jarraipen-adierazlea:	Egindako sentsibilizazio-jardueren kopurua
	2
	Gidaliburuaren taldeetatik, fitxa laburrak (laburpen-fitxa) dauzkatenen kopurua eta ehunekoa
	16 / % 80

4. ILDO ESTRATEGIKOA: MERKATUAREKIKO KOORDINAZIOA

12. JARDUERA: *Fabrikatzaileak eta hornitzaileak irizpide teknikoak egiteko prozesuan inplikatzeari*

- 1. **EKINTZA:** Ingurumen-irizpideak enpresa-sektorearekin egiaztatzea 2 produktu-kategoriarentzat


Aurten egiaztapena egin da enpresa-sektorearekin energiari lotutako eraikuntza-instalazioak kategoriarako eta garraio publikoa: autobusak kategoriarako.

12. jarduera: Fabrikatzaileak eta hornitzaileak irizpide teknikoak egiteko prozesuan inplikatzeari	
Jarraipen-adierazlea: 16	Egindako foroaren kopurua
	2 foro eginda irizpideak garatzeko
	Parte hartu duten enpresen kopurua (foro bakoitzeko eta guztira)
	16 enpresa (batez beste, 8 enpresa foro bakoitzeko)

14. JARDUERA: *Berrikuntzako erosketa-prozesuan parte hartzea erraztea*

- 1. **EKINTZA:** Merkatuarekin elkarrizketa izateko jardunaldi 1 egitea

Berrikuntzako erosketa publikoko proiektu pilotuaren esparruan -Ertzaintzarekin egindako proiektu pilotua, ertzaintxe bateko leihoak aldatzeko-, elkarrizketa izan da merkatuarekin. Halako prozesuetan beharrezkoa den elkarrizketa horretan, aukera baliatu da berrikuntzako erosketa publikoa haiei hurbiltzeko, lizitazio publikoen errealitatera hurbildu nahi den kontzeptu gisa.



14. jarduera: Berrikuntzako erosketa-prozesuan parte hartzea erraztea	
Jarraipen-adierazlea:	Egindako ekintzen kopurua
	Jardunaldi 1
	Parte hartu duten erakundeen kopurua (ekintza bakoitzeko eta guztira)
	9

15. JARDUERA: *Hornitzaileentzako prestakuntza-ikastaroak garatzea*

- 1. **EKINTZA:** Prestakuntza-jardunaldi 1 egitea enpresa-sektorearentzat

Joan den urrian “Nola aurkeztu eskaintza arrakastatsu bat lizitazio publiko batera ingurumeneko alderdiak sartuz” jardunaldia egin zen. Jardunaldi horren helburua informazio praktikoa ematea eta enpresek administrazioaren ingurumen-eskakizunei nola eta zer tresnarekin erantzun ezagutzea da.

15. jarduera: Hornitzaileentzako prestakuntza-ikastaroak garatzea	
Jarraipen-adierazlea:	Antolatutako ikastaroen kopurua
	Jardunaldi 1
	Parte hartu duten enpresa hornitzaileen kopurua
	12

5. ILDO ESTRATEGIKOA: KOMUNIKAZIOA, ZABALKUNDEA ETA SAREKO LANA

16. JARDUERA: *Zabalkundeko ekintza erregularrak egitea*

- **1. EKINTZA:** Joerei buruzko 3 txosten argitaratzea

2016an joerei buruzko hiru txosten argitaratu dira. Haietan, erosketa eta kontratazio publiko berdeari buruzko albisterik nabarmenenak azpimarratu dira, bai Europa mailan, bai toki mailan.



- **2. EKINTZA:** 12 albiste argitaratzea

2016an erosketa publiko berdearen arloko 12 albiste argitaratu dira www.ihobe.eus webean.

16. jarduera: Zabalkundeko ekintza erregularrak egitea

Jarraipen-adierazlea:	Egindako zabalkundeko ekintzen kopurua (urtean eta guztira)
	15 jarduera eginda

17. JARDUERA: *Jardunbide egokiak zabaltzea*

- **1. EKINTZA:** 3 jardunbide egoki/bikaintasun-kasu egitea

Aurten ingurumeneko jardunbide egoki eta bikaintasun-kasu hauek garatu dira:

- Donostiako Udala, autobusak ingurumen-irizpideekin erostea
- Nerbioi-Ibaizabal, erosketak zentralizatzeren arloan
- Gipuzkoako Foru Aldundia, erosketak zentralizatzearen arloan
- Ingurumeneko bikaintasun-kasua Gallartako Meatzaritzaren Museon

Halaber, aurten Gallartako Meatzaritzaren Museoko ingurumeneko bikaintasun-kasu praktikoa prestatzen hasi da baina, amaitu ez denez, ez da aintzat hartu. Bestalde, egindako jardunbide egoki horiei joera txostenetan egiten diren aipamenak gehitu behar zaizkie.

17. jarduera: Jardunbide egokiak zabaltzea

Jarraipen-adierazlea:	Argitaratutako jardunbide egokiaren kopurua (urtean eta guztira)
	3 eginda eta haietako bat argitaratuta 2016an

18. JARDUERA: *Programaren betearazpen mailaren eta erakunde-helburuen lorpen mailaren urteko emaitzak argitaratzea*

2016 amaieran egin behar zen emaitzen lehen txostena 2017 hasieran egingo da eta talde traktoreak berrikusi eta onartu ondoren argitaratuko da.

18. jarduera: Programaren betearazpen mailaren eta erakunde-helburuen lorpen mailaren urteko emaitzak argitaratzea	
Jarraipen-adierazlea:	Argitaratutako emaitzen txostenen kopurua
	e.g. (lehenengoa 2017an argitaratuko da)

19. JARDUERA: *Europa eta/edo nazioarte mailako sare, lantalde eta proiektuetan aktiboki parte hartzea*

- **1. EKINTZA:** Procura+ kanpainan parte hartzea

Ihobek Procura+ kanpainan parte hartzen du. Helburu orokorra Europako eta nazioarteko lider nagusiek erosketa publiko berdearen arloan zer egiten duten ezagutu eta haiekin euskal esperientzia partekatzea da.

Kanpaina horren esparruan 2 jakinarazpen egin zaizkio talde osoari, bata erosketa zentralizatuaren arloko jarduerak jakinarazteko eta bestea Euskal Autonomia Erkidegoko erosketa eta kontratazio publiko berdearen 2020 programaren onarpena jakinarazteko.

- **2. EKINTZA:** Procura+ kanpainako webinar 1ean parte hartzea

Joan den abenduan “Market Engagement: Case studies of good practice and new approaches from the Procura+ Network” webinarrean parte hartu zen, Ihobek enpresekin irizpideak garatzeko egindako lanaren esperientzia erakutsiz. Webinar horiek ICLEIk gidatzen duen Procura+ kanpainan garatutako prestakuntza ildoaren barruan daude.

- **3. EKINTZA:** Euskal Autonomia Erkidegoko erosketa publiko berdeko jardunbide egoki bat idaztea 10YFP SPP Programme-rako

CEGESTik 1990an sortutako irabazi asmorik gabeko erakundea da eta Latinoamerikan garapen jasangarriaren alde egiteko eginkizuna dauka. Kasu praktiko bat egin du, erakusten duena Euskal Autonomia Erkidegoko erosketa publiko berdearen programak nola sartzten duen enpresa eta ETE-ekiko lana. Kasua oraindik behin betiko argitaratzeke dago, eta Nazio Batuen Ekoizpen eta Kontsumo Jasangarriko Hamar Urteko Esparru Programaren Kontratazio publiko jasangarriaren programako lantalde baten barruan kokatzen da.

- **4. EKINTZA:** Topaketa Hego Koreako ordezkarezekin

Joan den ekainean erosketa publiko berdearen taldea eta Ogasun eta Finantza Saila Hego Koreako ordezkarezekin bildu ziren arloari buruzko esperientziak partekatzeko.

- **5. EKINTZA:** FSCK antolatutako “Zura bizi” jardunaldian parte-hartzea

Joan den ekainean erosketa publiko berdearen esparruan ingurumen-irizpideen garapenean zura erabiltzea nola pentsatzen ari den aurkeztu zen jardunaldian.

- **6. EKINTZA:** Nafarroako Unibertsitate Publikoak antolatutako “Kontratazio publiko berria: merkatua eta ingurumena” biltzarrean parte hartzea

Joan den urrian Nafarroako Unibertsitate Publikoak antolatutako “Kontratazio publiko berria: merkatua eta ingurumena” biltzarrean parte hartu zen, “Esperientzia euskal administrazioaren lizitazioetan ingurumeneko klausulak sartzen” hitzaldiarekin.

- **7. EKINTZA:** CONAMA 2016an parte hartzea

Joan den azaroan CONAMAn parte hartu zen; zehazki, ingurumenarekin eta gizartearekin arduratsua eta berritzailea den kontratazio eta erosketa publikoa lantaldean. Aurkezpen horretan Euskal Autonomia Erkidegoko erosketa eta kontratazio publiko berdearen 2020 programa aurkeztu zen.

- **8. EKINTZA:** Ihoberen erosketa publiko berdeko jardunbide egoki bat idaztea GPP Best europar proiekturako

Ecosistemik, GPP Best europar proiektuaren koordinatzaileak, Ihoberen ikuspegia hautatu zuen aholkularitza-zerbitzuen kontratuak betearaztean ingurumen-irizpideak egiaztatuzko – halakoak dira Ihohek egiten dituen kontratu gehienak. Jardunbide egokia proiektuan egindako jardunbide egokien katalogoaren barruan argitaratuko da.

- **9. EKINTZA:** Autobusentzako irizpideak garatzeko lanean lortutako emaitzak Europako Batzordera eramatea

Europako Batzordera eraman dira autobusentzako irizpideak garatzeko lanean lortutako emaitzak, batez ere enpresa eta administrazioekin egindako egiaztapena.

- **10. EKINTZA:** Jardunbide egokiak agertzea Udalerrien eta Probintzien Espainiako Federazioak egindako “Toki-erakundeen hondakinen kudeaketako eta birziklapeneko esperientzien gidaliburua” argitalpenean.

Euskal Autonomia Erkidegoko bi jardunbide egoki sartu dira “Toki-erakundeen hondakinen kudeaketako eta birziklapeneko esperientzien gidaliburua” argitalpenean, erosketa publiko berdeari lotutakoak. Haietako bat Ihoberen Erosketa eta kontratazio publikorako gidaliburuari dagokio eta bestea bideak garbitzeko eta hondakinak kudeatzeko lizitazioa da, Nerbio Ibaizabal udaltaldeak kudeatzen duena.

- <http://femp.femp.es/files/3580-1469-fichero/Guia%20Residuos%20FEMP-DEF%2024-11.pdf>







20. jarduera: Europa eta/edo nazioarte mailako sare, lantalde eta proiektuetan aktiboki parte hartzea

Jarraipen-adierazlea:	Egindako jardueren kopurua
	10

2.3. PROGRAMAREN JARDUEREN INPLEMENTAZIO-EGOERA:



* 2016an hasi gabeko jarduerak

JARDUERAK	Hemendik hasita	Hona arte	Egoera
ILDO ESTRATEGIKOA: Edukia eta inplementatzeko tresnak			
1. Erosketa eta kontratazio publiko berderako gidaliburua eguneratu eta zabaltzea	2016	2016	
2. Eredu-agirien proposamenak egitea lehenetsitako taldeentzat	2016	2018	
3. Jarduera pilotuak abiaraztea eremu berrietan	2017	2020	*
4. Laguntza teknikoa eskaintzea	2016	2020	
5. Garatutako irizpideak zuzeneko erosketako ikuspegira egokitzea	2016	2016	
ILDO ESTRATEGIKOA: Kontratazio-prozeduretan sartzea			
6. Dauden kontratazio-ereduak eta -tresnak berrikustea			*
7. Erosketa eta kontratazio publiko berdeko prozesuak birdefinitzea	2016	2017	*
8. Erosketa berde publikoa sustatzea	2016	2017	
ILDO ESTRATEGIKOA: Prestakuntza, trebakuntza eta sentsibilizazioa			
9. Erosketa eta kontratazio publiko berdea prestakuntza-eskaintzan sartzea	2016	2020	
10. Prestakuntza-moduluak prestatzea autoikaskuntzarako	2016	2020	
11. Sentsibilizazio-ekintzak egitea	2016	2020	
ILDO ESTRATEGIKOA: Merkatuarekiko koordinazioa			
12. Fabrikatzaileak eta hornitzaileak irizpideak egiteko prozesuan inplikatzeko	2016	2016	
13. Hornitzaileen eta erosleen arteko topaketak antolatzea	2017	2020	*
14. Berrikuntzako erosketa-prozesuetan parte hartzea erraztea	2017	2020	*
15. Hornitzaileentzako prestakuntza-ikastaroak garatzea	2016	2020	
ILDO ESTRATEGIKOA: Komunikazioa, zabalkundea eta sareko lana			
16. Zabalkundeko ekintza erregularrak egitea	2016	2020	
17. Jardunbide egokiak zabaltzea	2016	2020	
18. Programaren betearazpen mailaren eta erakunde-helburuen lorpen mailaren urteko emaitzak argitaratzea	2016	2020	*
19. Europa eta/edo nazioarte mailako sare, lantalde eta proiektuetan aktiboki parte hartzea	2016	2020	



2.4. JARDUEREN LABURPENA

1. ILDO ESTRATEGIKOA: EDUKIA ETA INPLEMENTATZEKO TRESNAK	1. JARDUERA: Erosketa eta kontratazio publiko berderako gidaliburu praktikoa eguneratu eta zabaltzea	<ol style="list-style-type: none"> Hondakinen kudeaketari eta bideen garbiketari buruzko kapitulua garatzea Garraio publikoa: autobusak kapitulua garatzea Energia hornidura kapitulua garatzea Instalazioak kapitulua garatzea Ingurumen-irizpideak sinplifikatzea 14 produktu-kategoriarentzat Erosketa Publiko Berdea web-atala egokitzea www.ihobe.eus webean ERAS tresnaren aplikazio informatikoak garatzea
	3. JARDUERA: Jarduera pilotuak abiaraztea eremu berrietan	<ol style="list-style-type: none"> Pilotua berrikuntzako erosketa publikoan Berrikuntzako erosketa publikoari buruzko ideien koaderno Erosketa publiko berderako eta bizi-zikloaren kostuen analisirako gidaliburua egitea
	4. JARDUERA: Laguntza tekniko pertsonalizatua eskaintzea	<ol style="list-style-type: none"> Jasotako 59 eskaerei erantzun zaie Ingurumen-klausulak jarraibide eta prozeduretan sartzeko laguntza Eraikuntza eta eraikigintza erakundearteko mahaiaren kudeaketa Prestakuntza-jardunaldiak ematea Gasteizko Udalarentzat eta Bizkaiko Foru Aldundiarentzat
	5. JARDUERA: Garatutako produktu eta zerbitzuentzako irizpideak ikuspegi pribatura edo zuzeneko erosketako ikuspegira egokitzea	<ol style="list-style-type: none"> Zuzeneko erosketako 9 fitxa egitea
2. ILDO ESTRATEGIKOA: KONTRATAZIO- PROZEDURETAN SARTZEA	6. JARDUERA: Dauden kontratazio-ereduak eta -tresnak berrikustea	<ol style="list-style-type: none"> Euskal Autonomia Erkidegoko kontratazio-plataforma aldatzea
	8. JARDUERA: Erosketa berde publikoa sustatzea	<ol style="list-style-type: none"> Topaketa euskal administrazio nagusien artean erosketaren zentralizazioaren arloan
3. ILDO ESTRATEGIKOA:	9. JARDUERA: Erosketa eta kontratazio publiko berdea prestakuntza-eskaintzan sartzea	<ol style="list-style-type: none"> 8 jardunaldi tekniko egitea



PRESTAKUNTZA, TREBAKUNTZA ETA SENTSIBILIZAZIOA	10. JARDUERA: Prestakuntza-moduluak prestatzea autoikaskuntzarako	1. Autoikaskuntza-ikastaroa webean argitaratzea, ppts formatuan
	11. JARDUERA: Sentsibilizazioko aldizkako ekintzak egitea	1. Kanpoko proiektuen 2 jardunaldi edo bileratan parte hartzea
4. ILDO ESTRATEGIKOA: MERKATUAREKIKO KOORDINAZIOA	12. JARDUERA: Fabrikatzaileak eta hornitzaileak irizpide teknikoak egiteko prozesuan inplikatzea	1. Ingurumen-irizpideak enpresa-sektorearekin egiaztatzea 2 produktu-kategoriarentzat
	14. JARDUERA: Berrikuntzako erosketa-prozesuan parte hartzea erraztea	1. Merkatuarekin elkarriketa izateko jardunaldi 1 egitea
	13. JARDUERA: Hornitzaileentzako prestakuntza-ikastaroak garatzea	1. Prestakuntza-jardunaldi 1 egitea enpresa-sektorearentzat
5. ILDO ESTRATEGIKOA: KOMUNIKAZIOA, ZABALKUNDEA ETA SAREKO LANA	16. JARDUERA: Zabalkundeko ekintza erregularrak egitea	1. Joerei buruzko 3 txosten argitaratzea 2. 12 albiste argitaratzea
	17. JARDUERA: Jardunbide egokiak zabaltzea	1. 3 jardunbide egoki/bikaintasun-kasu egitea
	19. JARDUERA: Europako eta nazioarteko sare, lantalde eta proiektuetan aktiboki parte hartzea	1. Procura+ kanpainan parte hartzea 2. Procura+ kanpainako webminarreen parte hartzea 3. Euskal Autonomia Erkidegoko erosketa publiko berdeko jardunbide egoki bat idaztea 10YFP SPP Programme-rako 4. Topaketa Hego Koreako ordezkariarekin 5. FSck antolatutako "Zura bizi" jardunaldian parte-hartzea 6. "Kontratazio publiko berria: merkatua eta ingurumena" biltzarrean parte hartzea 7. CONAMA 2016an parte hartzea 8. Ihoberen erosketa publiko berdeko jardunbide egoki bat idaztea GPP Best europar proiekturako 9. Autobusentzako irizpideak garatzeko lanean lortutako emaitzak Europako Batzordera eramatea 10. Jardunbide egokiak agertzea Udalerrien eta Probintzien Espainiako Federazioak egindako Toki-erakundeen hondakinen kudeaketako eta birziklapeneko esperientzien gidaliburua argitalpenean.



Informazio gehiago, hemen:

<http://www.ihobe.eus/ContenidosPlanos/Ficha.aspx?IdMenu=2832E550-B480-444A-8AB1-2A84CD9907B3&Idioma=eu-ES>

Tel: 94 423 07 43

www.ihobe.eus
compra.verde@ihobe.eus

